

Ekarpen nagusien laburpena

FORO IREKIA

OGP Euskadi Planaren ebaluazioari buruzko lehenengo bilera

Bilbo (2019-07-10)



HITZAURREA

2019ko uztailaren 10ean egin zen, Bilbon, *OGP Euskadi planaren ebaluazioari buruzko lehenengo bilera*. Orain, lan-dinamikarako taldeetan parte hartu zuten pertsonak egindako proposamenak, iruzkinak eta iradokizunak jasotzen dira orain dokumentu honetan.

Gai ezberdinak landu ziren lantaldeetan. Bi galdera nagusitan bana daitezke gai horiek:

1. **Nola indartu gizarte zibilak planaren jarraipena egiteko prozesuan duen zeregina**: jarduteko gaitasuna duten erakunde sozial gehiago sartuz, eta koordinaziorako barne-mekanismoak abiaraziz.

- *Zein dira edo izan daitezke erakunde horiek?*
- *Zein erakundek ordezka ditzakete hoberen Euskadiko herritarren interesak, politika publikoek aurrera egin dezaten eta, horrenbestez, planaren jarraipena egin eta plan berriak prestatu daitezten?*
- *Erakundeek hornitzaile edo diruz lagundutako entitate gisa dituzten interesak erabakigarriak dira herritarren interesak defendatzeko?*
- *Nola sar daiteke gizarte zibila, modu eraginkorragoan, OGP Euskadi prozesuan?*

2. **Nola indartu konpromisoak, kontuak emateko aukerak handiagoak izan daitezten** (komunikabideetan agerpen handiagoa eta herritarrak jarraipenean eta kontrol sozialean sartzea).

- *Zein bide eta komunikabide dira eraginkorrenak Euskadin, herritarrak gai publikoetan sartzeko?*
- *Komunikazioaren zein eragilek edo zein bidek aktibatzen dute herritarrek gai publikoen gainean duten interesa? Edo zeinek egiten diote aurre interes horri?*
- *Nola sar daitezke herritarrak modu eraginkorrean?*
- *Zein eduki izan daitezke komunikatzeko interesgarrienak? Zeren arabera neurtzen da hori?*

Ondorengo orrietan, bileran egin ziren ekarpenak azaltzen dira, labur.

1.- Nola indartu gizarte zibilak planaren jarraipena egiteko prozesuan duen zeregina: jarduteko gaitasuna duten erakunde sozial gehiago sartuz, eta koordinaziorako barne-mekanismoak abiaraziz.

Zein dira edo izan daitezke erakunde horiek?

Zein egon behar da eta zein falta da? Gizarte zibilaren zeregina indartzeko aldera, zein erakunde izan daitezke garrantzitsuak planaren jarraipen-prozesuan parte hartzeko?

- Denek izan behar dute parte hartzeko aukera.
- Denak hartu behar dira kontuan: antolatuta dagoena eta antolatuta ez dagoena; elkartua eta kolektiboa; garrantzitsua dena eta hain garrantzitsua ez dena; banakoak eta kolektiboak.
- Adituek parte hartu behar dute, baina baita gizarte zibil antolatuaren interesak eta kolektiboak ordezkatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateek ere.
- Interesgarria izan daiteke lurralde historikoetan ordezkaritza duten gizarte-eragileak sartzea. Helburua baita foro erregularrean garrantzia duten gizarte-eragileak erakartzea eta sartzea.

Bileran parte hartu zuten pertsonen beste eragile batzuk ere identifikatu zituzten, prozesuan modu aktiboagoan sartu ahal izango lirakekeenak. Honakoak kontuan hartuta:

- **Mota:** irabazi-asmorik gabeko entitateak, adibidez elkarteak, fundazioak eta erakunde sozialak.
- **Lurralde-eremua:** lurraldeko edo tokiko erakundeak, hurbilekoak izan daitezten.
- **Jarduteko eremua:** sektore-erakundeak (gobernu irekitik harago doazen esparruetako adituak) edo intereseko kolektiboak (normalean parte hartzeko prozesuetan ordezkaritza eskasa dutelako).
- **Antolaketa politikoa:** erakundeetan aldaketak sartzen lagun dezaketen erakundeak (alderdi politikoak, auzokoen plataformak, etab.) edo parte hartzeko foro instituzionalizatuetan parte hartzen duten entitateak.
- **Gobernu irekiaren aldeko kultura sortzeko ahala:** beste batzuk biltzen dituzten entitateak (sareen edo profesionalen sareak) eta alde zuzeneko esparruan (sentsibilizazioa, kultura, etab.) jarduten duten hezkuntzako eragileak.

Honako hauek dira bileran aipatu ziren erakundeak:

- fundazioak eta GGKEak, gai jakinetakoak barne (Internet Euskadi, adibidez).
- Hausnarketa egiteko foroak dituzten erakundeak eta jakituriaren ordezkaritza gisa bazkide aktiboak dituzten erakundeak (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País/Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza, etab.).
- Hirietako barrutietan dauden kontseiluak eta, udal mailan, auzokoen plataformak edo herritarren batzordeak.
- Lurraldeari lotuta dauden erakundeak, baldin eta prozesuetan ordezkatuta ez badaude edo horietan parte hartzen ez badute.
- Garrantzitsua da “zeharkako” erakunde gehiago erakartzea: adina, jatorria, generoa, enpresak edo sindikatuak, unibertsitateak.

- Gizarteratzeko dauden sektoreak ordezkatzan dituzten erakundeak (ekarpen kualitatiboa) eta gutxiengoan daudenen taldeak: feministak, LGTBI, gaixoak, ekologistak, presoak, etorkinak, etab.
- Hezkuntzako erakundeak: ikasleen elkarteak, irakasleak, ikasleen gurasoen elkarteak eta unibertsitateko kolektiboa.
- Gazteen mugimenduak: scout-ak, gaztetxeak, etab.
- Ekintzaileen taldeak: teknologia, zientzia, ingurumena, hazkuntza, elikadura, etab.
- Alderdi politikoak (hauteskundeetara aurkeztu diren talde independenteak barne).
- Erakundeei laguntzen dieten eragileak eta politika publikoei lotuta daudenak.
- Arartekoa.
- Gobernantza-eredu berriak (elkarlanean oinarritutako jardunak, komunitate irekiak, etab.) sustatzen dituzten entitateak, hala nola Wikitoki edo Bilbao Data Lab.

Gizarte zibil antolatuetan parte hartu arren, antolatuta ez dauden herritarrek ere parte har dezakete. **Garrantzitsua da elkarteren bateko kide ez diren pertsonen banako gisa parte hartzeko aukera ematea eta horretarako baldintzak ezartzea.** Horretarako, lehen urratsa izan daiteke OGP Euskadi prozesuan parte hartzeko gonbidapena luzatzea Irekian edo legegintzako prozesuetan modu aktiboan parte hartzen duten pertsonen.

Horri lotutako hausnarketa batzuk:

- Foro erregularra sortzean erabilitako aldagaiak aztertu, indartu behar baitira.
- Elkarte txikiak foro erregularrean parte hartzen jarrai dezaten lortzea, probatzeko elementuak direlako eta gure elkarte-sarearen isla direlako.

Zein erakunde ordezkari ditzakete hoberen Euskadiko herritarren interesak, politika publikoek aurrera egin dezaten eta, horrenbestez, planaren jarraipena egin eta plan berriak prestatu daitezkeen?

Atal honetan, ordezkari izan daitezkeen entitateak (aurrerago zehaztu direnak) azaldu beharrean, parte hartzea nahi den erakundeak (eta horien ordezkariak) **ondo aukeratzeko** irizpide batzuk ematen dira. Izan ere, honako neurri hauek proposatu dira:

- Alde batera uztea kontseiluak, organo formalak eta ordezkari lotutako kultura.
- Dagoeneko eratuta dauden parte hartzeko kontseiluetan beste politika batzuei buruzko iritziak biltzea, eta OGPren gaineko lan-saio batean ekarpenak biltzea.
- Elkarten ordezkari kategoriaz edo ezartzea: zein ikuspegi dute prozesuari buruz.
- Parte hartzen duten pertsonen kargua eta erabakitze ahalmena zehaztea. Parte hartzen dutenek ordezkari nahikoa izan behar dute.

Bestalde, galdera batzuk ere mahaigaineratu ziren: Zein eragilek ordezkatzan dituzte hoberen herritarren interesak? Ordezkari da prozesuari buruz ikuspegi ugari biltzeko modu eraginkorra?

Nolanahi ere, interesgarria da bere izaera kontuan hartuta pertsona edo eragile multzoa osatzen duten eragileak sartzea. Horrela, haien parte hartzea edukitzeaz gainera, prozesua indartu egingo da sare berriak daudelako:

- Bilbao Metropoli30 bezalako elkarteak sartzea; sozietate zibil antolatua da hori, eta erakundeetako, enpresetako eta elkargo profesionalen ordezkariek ditu.
- BasquePRO Elkargoak izeneko elkargo profesionalen sarea sartzea; sare horrek interes komuneko proiektuetan lan egiten du, 50.000 elkargokide ingururen laguntzari esker.
- Sektoreetako erakundeak sartzea: Adibidez, Bizkaiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko kideak, edo hirugarren sektoreko kideak...
- Datu irekien elkarrekin sartzea.
- Elkarrekin erregistroa erabiltzea, behar denean entitateak identifikatu ahal izateko.

Erakundeek hornitzaile edo diruz lagundutako entitate gisa dituzten interesak erabakigarriak dira herritarren interesak defendatzeko?

Hornitzaileen interesei dagokienez:

- Aktibismo zibikoa existitzen da. **Enpresetako eragile pribatuek** lurraldearen garapenarekin duten **konpromisoari balio handiagoa eman behar zaio, eta baloratu behar da.**
- Baina, berez, partaideek altruismo hutsik ez dutela kontuan hartuta, **ekonomikoak ez diren interesak eta pizgarriak zehaztu behar dira.**
- **Txosten bat egitea** proposatu da, bertan azaltzeko zein den ongizate komunerako bidean Euskadik bizi duen errealitatea, irizpideak ezartzeko eta parte-hartzearen onurak aitortzeko.
- **Konpromiso-kode bat** ezarri behar da: gaien berri emateko, proposamenak jasotzeko, horiek defendatzeko eta dekalogoak zabaltzeko (SAREA).
- Konpromiso-kode hori eragile guztiek sinatu eta zabaldu beharko dute.

Horrenbestez, **herritarren interesak defendatzeaz gainera, eragileak hornitzaileak edo funts publikoen hartzailak izan daitezke.** Euskadin, bai hirugarren sektoreak bai laugarren sektore moduan ezagutzen denak herritarren interesen defentsa garrantzitsua egin dute azken hamarkadetan, eta defentsa hori behar bezala azpimarratu eta aitortu behar da.

Nola sar daiteke gizarte zibila, modu eraginkorragoan, OGP Euskadi prozesuan?

- **Erakundeek gizarte zibilaren eztabaida eta antolaketa erraztu behar dute,** Planaren gobernantza-eredua abiapuntutzat hartuta:
 - **Talde antolatuetako parte-hartzean kopuru egokia bermatu behar da** (benetako partekotasuna), eta gizarte zibilaren entitateek diskurtso bateratua egiteko baldintzak sortu behar dira (foru erregularrean, esaterako).
 - **Gizarte zibilaren ordezkariek elkarren artean koordinatzeko espazio edo foro birtuala sortu behar da.** Innobasque izan daiteke koordinaziorako espazio horren buru.

- **Erakundeen parte-hartzerik ez duten foro ireki bat sortuko den aztertu behar da.** Gizarte zibilaren talde bat sortu behar da, erakundeen edo sustatzaileen taldea ere badago eta (arazoa izan daiteke ea zenbat denbora izango duten eragile horiek parte hartzeko). Azken batean, soilik herritarrentzat diren deialdiak ezarri behar dira, eragileentzat, elkarreentzat eta herritarrentzat diseinatutako bileretan agian herritarrek ez dute informazio guztia jasotzen.
 - Dena den, honako hauek bereizi behar dira: konpromiso-taldeetako parte-hartzea (gai zehatzagoak) eta foro erregularreko parte-hartzea (gaiak askotarikoak edo orokorrakoak). **Konpromiso-taldeen ahalik eta irekienak izan behar dute.**
 - **Betetze-maila Baloratzeko Herritarren Kontseilua** sor daiteke, sufragio bidez aukeratuta, kontuak ematean jarraipena egiteko. Kontseilu horren bidez, agian, gizarte zibila modu eraginkorrean sartu daiteke planaren jarraipena egiteko prozesuan.
- **Zorrotz aztertu behar dira gaur egun OGP Euskadin parte hartzeko dauden baldintzak, egoera hobetzeko ekintzak sor daitezten:**
 - **Parte-hartzea hobetzen ahalegintzea** (zertarako da, zer irabazten dugu. Bidezkoa da eta egin behar da). Nola egin aurrera eraikuntza-eredu partekatua lortzeko, eta ez banakoen interesen alde egiteko.
 - **Kontuan izan behar dira parte-hartzea eta batzea;** zein mailatan eta zenbatero (kostua eta etekinak).
 - Gizarte partaidea nahi badugu, **parte-hartzeko orduak aratu behar dira**, sindikatu-orduekin egiten den bezala (gizarte zibilarentzako konpentsazio-mekanismoak).
 - **Herritarren parte-hartzea sustatzeko plan bat** diseinatzea.
 - **Erraz irakurtzeko moduko OGP dokumentuak** diseinatzea **herritarrentzako**. Adibidez, herritarrek OGPren planari egindako ekarpenentzat sari edo aitortzaren bat sortzea.
 - **Gizarte zibilak, berak bakarrik eta talde sustatzailearen parean, iritzia emateko espazio bat (fisikoa edo digitala) sortu** behar den aztertzea.
 - **Prozesuan garrantzitsuak diren eragileak ondo identifikatu eta aitortu behar dira** (aurreko atalean azaldu bezala). Horri lotuta, bide batzuk eman dira:
 - **Batu ez diren elkarteak eta herritarrak mapa batean jarri behar dira**, lurraldeka, parte hartzeko prozesuetan duten interesaren arabera eta gaika banatuta.
 - Erakundeen **zentsuak eta erregistroak**, mota guztiak jasotzeko.
 - **Hausnarketa egin behar da, herritarrak hobeto ordezkatzeko dituzten elkarte motei buruz.** Lagin bat sortu daiteke.
 - **Arlo sektorialera jo behar da:** elkarrizketa zibilerako mahaiak, langile teknikoak eta politikoa, elkarteak eta hirugarren sektorea. Mahai horietan prestatu eta kontrastatuko da politika soziala.
 - **Herritarren datu-baseak erabili behar dira, dagoeneko eginda daudenak.** Adibidez, Bizkaitarren Sarea, BFAn parte hartzeko prest agertu diren pertsonak dituenak.
 - **Sare sozialetan entzule aktiboak izan behar gara.**
 - **Administrazioek dagoeneko martxan dituzten baliabideetan eta sareetan proposatu diren ekintzak sartu behar dira.** Eraginkortasuna da helburu, baliabide berriak sortzen ez ibiltzeko (KZGunea sarea, esaterako).
 - **Udalen sareen bidez zabaltzea.**
 - OGPari buruzko berriak zabaltzea, jakinaraztea eta horien kontuak ematea lurralde eta sektoreko kontseiluetan.

- **Gaur egungo prozesuen diseinua hobetu behar da eta komunikazioa indartu:**
 - Deialdiak lurraldeka txandakatzean herritarrak hara eta hona ibili behar dira, eta horrek prozesuan etengabeko parte-hartzea egotea zailtzen du. **Lekuz aldatu gabe parte hartzeko baliabideak, online motakoak, jarri beharko lirarteke, parte-hartzea erreala eta eraginkorra izan dadin.**
 - **Deialdietan ahalegin handiagoa egitea:** jarraipena, inskripzioa, etab. Udaletatik egin behar zaizkie deialdiak herritarrei, deialdi irekiak.
 - Bilerak erakargarriagoak izan daitezten, lantaldeetan **gidariak eta politika sektorial zehatzei buruzko kasuak identifikatu behar dira, baita interesgarriak diren gizarte-eragileak ere.**
 - **Ekarpenak murrizketarik gabe jaso behar dira.**
 - **Komunikazio eraginkorra** diseinatu behar da: zuzena, argia eta pedagogikoa.
 - **Gehiago azaldu behar da** Gobernu Irekiaren kontzeptua, eta OGP zer den, ezagutzera eman ahal izateko eta, horrela, gizarte zibilaren parte-hartzea sustatzeko.
 - **Eragileek eta erakundeek koordinatuta egon behar dute:** komunikazioa eta antolaketa koordinatuak izan behar dira (informazioa ezin da gainjarri, eta konpromiso ezberdinen bilerak ezin dira egun berean jarri). Erakundeek hitzez adierazi behar dute mezua.
 - **OGP planaren hartzailentzako direktorio bakarra sortu behar da,** eta komunikazioak bateratu, betiere datu pertsonalak babesteko legea kontuan hartuta.
 - **Erakarri nahi diren taldeentzako interesgarriak diren arazoak kontuan hartu behar dira.** Gaiak modu estrategikoan bideratu behar dira, modu proaktiboagoan, mezua argi heltzeko kolektibo zehatzei.
 - **Komunikazioa gai zehatzei buruz izan behar da** (proba pilotuei buruz, adibidez), zuzenago heldu dadin.

- **Parte hartzeko bide berriak aurkitu behar dira, formatu eta metodologia berrieekin.**
 - **Focus groups edo auzokoen mahaiak** bezalako ekintzak egin behar dira, herritarrek parte har dezaten lortzeko.
 - **IGPen metodologia**(interbentziogune parte-hartzaileak) erabili behar da:
 - joera guztietara heltzen diren taldeak sortu, fidagarritzat jotzen diren adituak eskatu eta behar den informazioa zehaztu.
 - IGPen irizpideak: adina, generoa, ikasketa-maila, etab.
 - Adibide batzuk: Leitzarango autobidea (Gipuzkoa), Artxanda eta Zazpi Kaleak (Bilboko Udala), Madril hiriko behatokia.
 - **Zozketaren bidez biztanleak deskribatzen ez dituzten laginak atera daitezke; baina, era berean, agian antolatuta ez dauden herritarrak ere sartzen dituzten talde deskriptiboak era daitezke.** Gainera, adituak eta aditu gisa parte har dezaketen talde antolatuak ere sar daitezke talde horietan (elkarteak, GKEak, etab.). Zozketan sartu diren taldeek erantzunak emango dituzte alderdi desberdinetatik egindako galderentzat, eta horri esker askotariko informazioa jaso ahal izango da.
 - **Online espazioak** sortu behar dira, parte-hartzea benetakoa, eraginkorra eta kalitatezkoa izan dadin.
 - **Gizarte zibilaren foro digitalak** sortu behar dira, komunikaziorako erraztasuna ematen dutenak; horietan galdetuko zaie zein interes duten eta Gobernu Irekiak zertan eta nola lagun diezaiekeen.

- **Jolasean oinarritutako irakaskuntza eta aitortpena** erabili behar dira parte-hartzea sustatzeko.

MEZU NAGUSIAK

Parte hartu nahi duten pertsona guztiek parte hartzeko aukera izateko eta haien ekarpenak kontuan hartzeko baldintzak sortuko dira.

Gizarte zibilak eztabaida dezan eta antolatu dadin lagundu behar du Administrazioak.

Garrantzitsua da "nor den nor" jakitea: erregistroak eguneratu, mapak sortu, etab.

Gobernu Irekiak komunikazio argia eta zuzena izan behar du.

Parte hartzeko bide berriak aurkitu behar dira, formatu eta metodologia berriekin.

Herritarrak tartean sartu behar dira, gizarte eragileez gainera.

2.- Nola indartu konpromisoak, kontuak emateko aukerak handiagoak izan daitezen (komunikabideetan agerpen handiagoa eta herritarrak jarraipenean eta kontrol sozialean sartzea).

- Funtsezko premisa moduan, oso garrantzitsua da tartean dauden erakundeek eta eragileek batera lan egitea lanaren berri ematean; proiektua azaldu behar diete herritarrei, proiektuak dituen balioen inguruan kultura sortu ahal izateko.
- Herritarrengana joan behar da, eta ez haiek guregana etorri.

Zein bide eta komunikabide dira eraginkorrenak Euskadin, herritarrak gai publikoetan sartzeko?

Ohiko komunikabideak:

- Oraingoz **ohiko komunikabideak** (telebista, irratia eta idatzizko prentsa) baliozkoak dira, bai orokorrak baita espezializatuagoak edo iritzia ematekoak ere.
- Bereziki garrantzitsua da **tokiko komunikabideekin ahalegin berezia egitea**, hurbilago baitaude. Lurralde historiko bakoitzeko komunikabideez gainera, eskualdeetako komunikabideak herritarrengandik oso hurbil daude.
- **Sektoreetako komunikabideak** ere aipatu dira, hala nola elkarreketakoak eta fundazioetakoak, GKEenak, alderdi politikoak, eta beste batzuk.

Online komunikabideak eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako komunikabide berriak:

- Oso garrantzitsua da **sare sozialetan agertzea, berehalakoak direlako eta gazteengana hurbiltzen direlako**. Hona hemen zenbait adibide:
 - Sare sozialetako iritzi-talde egiaztatutak.
 - Mezu laburrak sare sozialetan (Twitterren, esaterako), parte hartzen duten eragileek eta erakundeek argitaratuta.
- Sare sozialetako agerpen handiago hori informala izan beharko litzateke, eta ez bakarrik erakunde mailakoa. Hau da, beti da interesgarriagoa pertsona jakin batek bere profilean argitaratzen duena, eta ez pertsona horrek profil ofizialaren bidez argitaratzen duena (bere karguari edo enpresari lotutako profilaren bidez).
- Badaude zuzeneko beste komunikabide batzuk ere: **web-orrialdeak, helbide elektronikoak eta, neurri txikiagoan bada ere, telefono mugikorrak**.
- Baliabide berriek gero eta erabilera handiagoa dute: **podcast** izenekoak.

Komunikabide publikoak:

- **Erakunde guztien harremanetarako bideak eta komunikabideak erabili** behar dira, gizarte-eragileek eta herritarrek parte har dezaten eta, horrela, plana zehaztu eta garatzeko parte-hartzea handiagoa izan dadin.

- Ezinbestekoa da **ikus-entzunezko komunikabide publikoek koordinatuta lan egitea** gobernuetako, aldundietako eta udaletako **erakundeen komunikazio-ekintzekin**.
- Oso erabilgarria izango litzateke erakundeek (Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak eta udalak) batera erabiltzeko **plataforma digital bat** sortzea.
- Azkenik, **erakunde publikoek** zeregin garrantzitsua izan dezakete: liburutegiek, kultur-etxeek, Open Eskola direlakoek...

Komunikazioaren zein eragilek edo zein bidek aktibatzen dute herritarrek gai publikoen gainean duten interesa? Edo zeinek egiten diote aurre interes horri?

Eremu publikoa:

- **Erakundeek**, beren komunikatzeko egituren bidez, herritarrak aktibatzeke komunikabide izan behar dute.
- Halaber, kargu publikoak eta politikoak dituzten pertsonak **preskriptore publiko** ere izan behar dute.

Gizarte-eragile mota ezberdinak:

- ez da nahikoa ohiko komunikabideekin bakarrik lan egitea (agian arazoak sor daitezke). **Mugimendu handiena duten gizarteko sektoreekin konektatu behar da**, eta hortik aurrera, herritar guztiengana heldu behar da.

Beste preskriptore batzuk, orain parte hartzen ez dutenak:

- **Komunikabideen ordezkariak OGP Euskadiren foroetan eta taldeetan sartu behar dira**, kide aktibo gisa; hau da, proiektuaren aurrerapenen berri eman behar zaie, emaitzak zabaldu ditzaten.
- Aurreko puntuko ideia bera erabil daiteke **gizarteko pertsona garrantzitsuak** (kirolariak, artistak, etab.) eta **influencer** edo eragin-sortzaileak (sare sozialen esparrukoak) inplikatzeke.
- **Gizarte-eragileen** (elkartek, GKEak, fundazioak, etab.) parte-hartzea ere oso garrantzitsua da, bai parte-hartze fasean baita hedapen-fasean ere.

Nola sar daitezke herritarrak modu eraginkorrean?

Zabalkundea eman:

- Herritarrek parte hartzeko aukera bat izan daiteke **egin diren proiektuak zabaltzea**, parte hartzeko prozesuen bidez.
- Ildo horretan, **proposatu da** parte hartzeko proiektu bat amaitu ostean erabiltzeko **egiaztagiri moduko zigilu bat** sortzea.

OGPren foroetan eta taldeetan parte hartzen ez duten preskriptoreak sartu:

- Nortzuk: **komunikabideetako ordezkariak, pertsona ezagunak**, etab.
- Nola:
 - **Zabalkunderako ekintzen, programen eta gertaeren** diseinuan.

- Komunikabideetako **kazetariekin alde aurretik bilerak eginez**, modu aktiboan partekatze/entzuteko informazioa.
- OGP Euskadiren foroetan eta taldeetan parte hartuz.

Erakunde mailako kanpaina bat aukera ona izan daiteke parte-hartze handiagoa lortzeko:

- Proiektuaren berri ematea, eta **herrialde mailako kanpaina bat abiaraztea, esparru politiko osoa tartean sartuta eta herritarrei kontrola emanda.**

Atal honetan, honako ekintza-proposamen zehatzak gauzatu daitezke:

- **Kontuak emateko telebistako programa bat;** ardura politikoak dituzten pertsonak joango lirateke bertara, gobernu-programek duten aurrerapen-mailaren berri ematera. Herritarrak platoan egon daitezke, edo sare sozialen bidez galderak egin ditzakete, alde aurretik, kontuak ematen ari den pertsonak gaiak prestatuta eraman ditzan programara.
- Telebistan sare sozialen bidez parte hartzeko aukera horretatik abiatuta, **parte hartzeko nahiz kontuak emateko atari bat edo sare sozial bat sor daiteke.**
- **Kanal (YouTube, adibidez), serie edo programa bat** sor daiteke, umoreduna eta kaleko hizkera erabiltzen duena, **inspirazio gisako pilulak** emateko.

Eta, azkenik, hausnarketa batzuk egin dira:

- Nola lortu parte-hartzea? Parte-hartzea lortuko da **herritarrek ikusten badute beren parte-hartzea kontuan hartzen dela** eta beren proposamenak benetan ezartzen direla.
- **“Zergatik” interesgarriagoa da “zer” baino.** Askotan, politikariak ez dira ausartzen azaltzen zergatik ezin izan diren gauza batzuk egin; zerbait bete ez dutenean ez dute horren gaineko azalpenik eman.
- Zergatik da legez kontrakoa hauteskunde-garaian kontuak ematea?
- **Sare sozialetan modu aktiboan entzun behar da, eta horren arabera komunikazio-ekintzak diseinatu behar dira** (adibidez, Komunitatea/k sortu).

Zein eduki izan daitezke komunikatzeko interesgarrienak? Zeren arabera neurtzen da hori?

Erakunde mailako edukiak:

- **OGP mezua sartu behar da erakundeen maila goreneko diskurtsoetan** (Garapen Iraunkorreko Helburuekin egin den bezala).
- **OGP mezua sartu behar da erakundeen komunikazioan.**
- **“Erakundearteko proiektua edo taldea”** mezua azpimarratu behar da.

Edukiek pedagogikoagoak izan behar dute:

Zer da Open Government eta zertarako balio du (**Open Governmenten erabilgarritasuna**).

- **OGP Euskadi Planaren** edukia azaldu behar da.
- Lehenengo **emaitzak**.
- **Elkarrekin gobernatzeko kontzientzia sustatu behar da.**
- **Parte-hartzea onuragarria dela azpimarratu behar da.**
- **Jardunbide egokiak eta ezarpen-adibide** garrantzitsuak zabaldu behar dira.

Edukien gaineko beste iradokizun batzuk:

- Edukiek gai jakin bat izan behar dute: **zuzenean herritarrei eragiten dieten proiektuen eta politiken egoera.**
- Horretarako, tokiko esparruan hastea gomendatzen da, **tokiko komunikabideen bidez**, hurbilagokoak baitira.
- **“Goitik beherako” inplikazioa** lortu behar da, edukietan parte hartu dadin sustatuz.
- **Aukeran dauden ekimenetako bat hautatu behar da** (aurrekontu parte-hartzaileak, adibidez), gero kanpaina bat sortu eta herritarrek parte hartu dezaten.
- **Herritarrei zuzenean eragiten dieten edukien berri eman behar da.**
- **Eduki praktikoak**, ez teorikoak.
- **Kontuak emateari buruzko komunikazioa hobetu behar da.**
- **Publikoki ageri diren *haterrak* aprobetxatu behar dira** prozesua sozializatzeko.

MEZUAK

Tartean dauden erakundeek eta eragileek batera lan egin behar dute zabalkunde-lanetan.

Tokiko komunikabideak garrantzitsuak dira.

Komunikazio-kanpaina pedagogikoa.

Orain parte hartzen ez duten **beste preskriptore batzuk** sartu behar dira (komunikabideetako ordezkariak, pertsona ezagunak, *influencer* edo eragin-sortzaileak, etab.).

Online eta off-line agerpena (fisikoa).

Kontuak emateko programak (irratian, telebistan, sare sozialetan).

OGP mezua sartu erakundeen diskurtsoan.

Erakundearteko proiektuaren mezua aprobetxatu.